



**LANBIDE
HEZIKETAKO ZIKLOEN
PROGRAMAZIOA**

**PROGRAMACIÓN
DE LOS CICLOS FORMATIVOS
DE FORMACIÓN PROFESIONAL**



ENERGIA ETA URA

**ENERGIA BERRIZTAGARRIETAKO
GOI MAILAKO TEKNIKARIA**

6. modulua: Eguzki-instalazio Fotovoltaikoen Konfigurazioa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**LANBIDE
HEZIKETAKO ZIKLOEN
PROGRAMAZIOA**

**PROGRAMACIÓN
DE LOS CICLOS FORMATIVOS
DE FORMACIÓN PROFESIONAL**



ENERGIA ETA URA

ENERGIA BERRIZTAGARRIETAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

6. modulua: Eguzki-instalazio Fotovoltaikoen Konfigurazioa

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea:

Egileak: José Antonio Rodríguez Montero.

Koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán
KUALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL
www.kei-ivac.com



Diseinua eta maketazioa: TRESDETRES

Lege-gordailua: BI-380/2011

Orduak: 165
Unitateen kop.: 11

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzea eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzea gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.

AURKIBIDEA

UNITATE DIDAKTIKOEN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA	04. or.
0. unitate didaktikoa:	
0. Moduluaren aurkezpena.	06. or.
1. unitate didaktikoa:	
1. Eguzki-erradioaren parametroen azterketa	08. or.
2. unitate didaktikoa:	
2. Eguzki-instalazio termikoko instalazioen analisisa	12. or.
3. unitate didaktikoa:	
3. Eguzki-instalazio fotovoltaikoko instalazio autonomoen analisisa	17. or.
4. unitate didaktikoa:	
4. Sarera konektatzeko eguzki-instalazio fotovoltaikoko instalazioen analisisa	23. or.
5. unitate didaktikoa:	
5. Instalazio baten bideragarritasunaren azterketa	27. or.
6. unitate didaktikoa:	
6. Eguzki-instalazioetan erabilitako egitura moten azterketa. Integrazio arkitektonikoa.	32. or.
7. unitate didaktikoa:	
7. Instalazio fotovoltaiko autonomoen diseinua eta kalkulua	37. or.
8. unitate didaktikoa:	
8. Sarera konektatzeko instalazio fotovoltaikoen diseinua eta kalkulua	42. or.
9. unitate didaktikoa:	
9. Proiektuaren dokumentazio teknikoa lantzea	47. or.
10. unitate didaktikoa:	
10. Proiektuaren administrazio-dokumentazioa betetzea.	51. or.
11. unitate didaktikoa:	
11. Eguzki-instalazio fotovoltaiko baten proiektua.	55. or.



Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

EDUKI MULTZOAK									UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK	IRAUPENA
M1	M2	M3	M4	M5	M6	M7	M8	M9		
									UD0: Moduluaren aurkezpena.	1 h
X									UD1: Eguzki-erradiazioaren parametroen azterketa	10 h
	X								UD2: Eguzki-instalazio termikoko instalazioen analisisa	15 h
	X	X							UD3: Eguzki-instalazio fotovoltaikoko instalazio autonomoen analisisa	15 h
	X		X						UD4: Sarera konektatzeko eguzki-instalazio fotovoltaikoko instalazioen analisisa	12 h
X	X								UD5: Instalazio baten bideragarritasunaren azterketa	14 h
				X					UD6: Eguzki-instalazioetan erabilitako egitura moten azterketa. Integrazio arkitektonikoa.	15 h
		X			X	X			UD7: Instalazio fotovoltaiko autonomoen diseinua eta kalkulua	16 h
			X		X	X			UD8: Sarera konektatzeko instalazio fotovoltaikoen diseinua eta kalkulua	10 h
							X		UD9: Proiektuaren dokumentazio teknikoa lantzea	20 h
								X	UD10: Proiektuaren administrazio-dokumentazioa betetzea	9 h
X	X	X	X	X	X	X	X	X	UD11: Eguzki-instalazio fotovoltaiko baten proiektua	28 h
									GUZTIRA	165 h

1. multzoa: Eguzki-instalazioen ahalmena kalkulatzea eta haiek ezartzea
2. multzoa: Eguzki-instalazioetako aurreproiektuak egitea.
3. multzoa: Eguzki-instalazio fotovoltaiko isolatuak konfiguratzea eta kalkulatzea.
4. multzoa: Sarera konektatutako eguzki-instalazio fotovoltaikoak konfiguratzea eta kalkulatzea
5. multzoa: Eguzki-instalazio fotovoltaikoetarako egiturak hautatzea
6. multzoa: Barneko instalazio elektrikoak kalkulatzea
7. multzoa: Eguzki-instalazio fotovoltaikoen irudikapen grafikoa egitea
8. multzoa: Eguzki-instalazio fotovoltaikoen dokumentazio teknikoa lantzea
9. multzoa: Administrazio-dokumentazioa betetzea



0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA					Iraupena: 1 h								
Ikaskuntzaren helburuak:													
<ol style="list-style-type: none"> 1. Modulua garapeneraren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere. 2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea. 3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea. 4. Modulua unitate didaktikoen arteko eta modulua eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea. 5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez. 													
EDUKIAK					Murtzoak								
					1	2	3	4	5	6	7	8	9
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea. • Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea. 												
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloa osatzen duten kualifikazioak, eta moduluarekiko lotura. • Modulua ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian. • Modulua helburuak. • Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak. 												
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea. • Modulua garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak. 												
JARDUERA				METODOLOGIA					BALIABIDEAK				
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplik.:	D.	NORK		NOLA egingo den		ZERTARAKO egingo den		ZEREKIN egingo den				
			Ir.	Ik.									
J1 Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena.	1	10 min.	X	X	Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenaren interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da.	Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearen.	Aurreko ikasturteko sortutako	Ez da bitarteko berezirik behar.					



						taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango.	
J2 Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena.	2-4	10 min.	X		Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo informatika-baliabideen bidezko aurkezpena egingo du.	Ikasleek moduluen gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste.	Arbela. Power Point-eko aurkezpena edo antzekoa. Kronogramak. Informazioa duten fotokopiak.
J3 Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena.	2-3	10 min.	X	X	Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiez edo beste elementu batzuez lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu. Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da.	Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna.	Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar.
J4-E1 Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten ezagupenen identifikazioa.	5	30 min.	X	X	Jarduera hori elkarrizketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez.	Moduluaren garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitate egokitzeko aukera emango dio irakasleari.	Galdetegiak.

OHARRAK

- Nahikoa izango da J1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.
- J4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa barnean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.
- Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoak ere izan daitezke. Halakoetan, jarduera hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira.



1. unitate didaktikoa: EGUZKI ERRADIAZIOAREN PARAMETROEN AZTERKETA							Iraupena: 10 ordu								
IE1: Zona baten eguzki-potentzia kalkulatzen du, eta bertan eguzki-instalazioak ezartzeko aukerekin lotzen du.															
Ikaskuntzaren helburuak:															
<ol style="list-style-type: none"> 1. Eguzki-erradioaren parametroak neurtzea, tresna egokiak erabilia. 2. Eguzki-erradioaren parametroak dagozkion tauletan zehaztea. 3. Eguzki-instalazio termiko eta fotovoltaiko baten konfigurazio jakin bat hautatzeko irizpideak zehaztea. 															
EDUKIAK							Multzok								
							1	2	3	4	5	6	7	8	9
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Eremu bateko eguzki-ahalmena kalkulatzea. Neurketa-sistemak eta taulak maneiatzea. Eguzki-instalazioak egiteko kokapenari eta orientazioari buruzko azterlan teknikoak egitea. 						X								
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Eguzkia energia-iturri gisa. Eguzki-erradioa. Eremu baten eguzki-ahalmena zehazteko oinarritzko parametroak. Eguzki-instalazioen errendimenduan eragina duten aldagai klimatikoak. Eguzki-instalazioen kokapenerako faktoreak. 						X								
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Lanak egiten dituen bitartean jarrera ordenatua eta metodikoa izatea, eta zailtasunen aurrean saiatuki jotzea. Talde-lanetan elkartasunez parte hartzea, eta ahalegina taldeak eskatzen duenera egokitzea. 						X								
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK							
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikatuak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den								
J1 Unitate didaktikoaren aurkezpena.		0,5 h	X	X	Irakasleak unitatea aurkeztuko du, alderdi hauek adierazita: zein eduki landuko diren, unitatearen helburua, egin beharreko lanak, aurreikusitako denborak eta nola ebaluatuko den. Irakasleak ikasleei galderak egingo dizkie eguzki-energiaren parametroei buruz dituzten ezagupenen inguruan, eta horiek ezagutzeak duen garrantzia azpimarratuko du.	Ikasleen aurretiazko ezagutzak azalertzeko, ikasleek unitatea gainditzearen eskakizunak ezagutzeko, eta haiei aurrez jarrera egokia harrarazteko garatu behar duten lanarekiko.	OCDa. Ikasleei emango zaien unitatea aurkezteko eskema.								



J2 Eguzki-energiaren inguruko kontzeptuak azaltzea.	2	1 h	X		Irakasleak eguzki-energiaren inguruko kontzeptuak azalduko ditu: <ul style="list-style-type: none"> – Erradiazio motak. – Aire-masa. – Azimuta eta goratzea. – Eguzki-konstantea. – Eguzki-kokapena. – Etab. <p>Kontzeptu bakoitzaren adibideak jarriko ditu, horiek errazago barneratzeko.</p>	Eguzki energiari buruzko kontzeptuak ulertzeko, ondoren horiek aplikatzearen.	Powerpoint. Erradiazio-taulak.
J3-E1 Erradiazioa eta orientazioa neurtzeko ariketak egitea, eta abar.	1	45 min.	X	X	Irakasleak erradiazio-neurgailuaren eta iparrorratzaren erabilerari buruzko erakustaldia egingo du. Ondoren, ikasleek, banan-banan, hainbat neurketa egingo dituzte aparatu berekin, eta xede horretarako prestatutako fitxa batean erregistratuko dituzte.	Eguzki-erradiazioa eta orientazioa neurtzeko erabiltzen diren tresnak maneiatzen ikasteko.	Lan-fitxa, ariketaren enuntziatuarekin. Eguzki-erradiazioaren neurgailua. Iparrorratza.
J4 Eguzki-energiaren parametroak azaltzea.	2	2 h	X		Irakasleak eguzki-energia fotovoltaikoaren oinarriko kontzeptuak azalduko ditu: <ul style="list-style-type: none"> – Eguzki-irradiantzia. – Eguzki-erradiazioa. – Intsolazioa. – Puntako eguzki-orduak (PEO). – Inklinazio-koefizientea. – Etab. <p>Eguzki-erradiazioari eta intsolazioari buruzko taulak erabiliko dira kontzeptu horiek aplikatzeko, eta irakasleak haien erabileraren zenbait adibide emango ditu. PEO puntako eguzki-orduen kontzeptua uler dadin ahaleginduko da.</p>	Eguzki-energiaren inguruko oinarriko kontzeptuak ezagutu eta aplikatzeko. Dokumentazio teknikoa maneiatzeko.	Eguzki-irradiazio taulak. Intsolazio-taulak. Argitasun-indizearen taulak. Internet.



J5-E2 Dokumentazio teknika maneiatu eta interpretatzeko ariketak egitea.	2	45 min.	X	X	<p>Irakasleak zenbait ariketa gidatu egingo ditu erradiazio, intsolazio eta abarrei buruzko tauletan informazioa bilatu eta maneiatzeko. Ondoren, ikasleek informazioa bilatu eta interpretatzeko proposatutako ariketak egingo dituzte. Jarduera hau egiteko lan-gidoia honako hau izan daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Irakasleak zenbait adibide gidatu ematea. - Ariketaren enuntziatua azaltzea. - Ikasleek eskatutako informazioa bilatzea eta lan-fitxa betetzea. - Emaitzak azaldu eta alderatzea, eta bateratze-lana egitea. Irakasleak erantzun zuzenak justifikatzea. 	Eguzki-energiaren parametroak lortzeko beharrezko dokumentazio teknika maneiatzen ikasteko.	Lan-fitxa, ariketaren enuntziatuarekin. Eguzki-erradiazio, intsolazio eta abarrei buruzko taulak.
J6-E3 Eguzki-energiaren parametroei buruzko galdera sortak betetzea.	2	1 h.		X	<p>Ikasleek orain arte eskuratutako ezagupenei buruzko galdera sorta bat egingo dute (edo erantzungo dute). Galdera sorta ikasgelan zuzenduko da, sortutako zalantzen eta zailtasunen inguruko bateratze-lanaren bidez.</p>	Eskuratutako ezagupenak barneratzeko, eta horiek zein neurritaraino ulertu diren egiaztatzeko.	Lan-fitxa, ariketaren enuntziatuarekin.
J7 Efectu fotovoltaikoa eta erabilitako modulu motak azaltzea.	3	1 h	X		<p>Irakasleak efektu fotovoltaikoa azalduko du, baita gaur egun dauden zelula motak, horien ezaugarri nagusiak eta erabiltzen diren modulu fotovoltaikoen motak ere.</p>	<p>Zelula fotovoltaikoaren funtzionamendu-printzipioa ezagutzeko.</p> <p>Dauden zelula mota guztiak identifikatzeko.</p> <p>Erabiltzen diren modulu fotovoltaikoen motak ezagutzeko.</p>	Powerpoint. Zenbait motatako zelulak. Zenbait motatako modulu fotovoltaikoak.
J8 Efectu termikoa eta erabiltzen diren panel motak azaltzea.	3	1 h	X		<p>Irakasleak efektu termikoa azalduko du, baita gaur egun dauden panel motak eta horietako bakoitzaren ezaugarri nagusiak ere.</p>	<p>Panel termikoen funtzionamendu-printzipioa ezagutzeko.</p> <p>Erabiltzen diren panel termikoen motak identifikatzeko.</p>	Powerpoint. Hainbat motatako panel termikoak.
J9-E4 Modulu fotovoltaikoen	3	1 h		X	<p>Irakasleak ikasleei banakako lan-fitxa bat emango die.</p>	Eskuratutako ezagupenak errazago	Lan-fitxa, ariketaren



motak eta erabiltzen diren panel termikoen motak laburbiltzen dituen taula egitea.				Bertan, taula-formatua erabilia, dauden modulu fotovoltaikoen motei eta panel termikoen motei eta horien ezaugarriei buruzko laburpena egin beharko dute. Ikasgelako talde osoak bateratze-lana egingo du, eskuratutako ezagupenak nabarmenduta.	laburtzeko, eta modulu fotovoltaikoak eta panel termikoak fabrikatzeko dauden teknologien eta haien aplikazioen inguruko gogoeta bultzatzeko.	enuntziatuarekin.
E5 Idatzizko ebaluazio-proba bat egitea.		1 h	X	Helburua da irakatsi eta ikasteko prozesuan eskuratutako lorpenak ebaluatzea. Erantzun laburreko eta/edo test motako galdera sorta betetzea izango da proba. Dokumentazio teknikoa maneiatu eta interpretatzeko ariketaren bat gehi daiteke.	Ikasteko prozesua ebaluatzeko.	Proba idatzia.

OHARRAK

- Jarduera praktikoen lan-fitxak adierazitako epean eman eta jasoko dira, eta honako alderdi hauek baloratuko dira: adierazitako datan eman den eta horiek txukun, garbi eta zorrotasunez egin diren.
- J7 eta J8 jarduerak egiteko, garrantzitsua da zenbait motatako zelulak edo panel txikiak eskura izatea. Material hori eskuragarri ez badago, Interneten informazioa bilatzeko edota haren argazkiak eta ezaugarriak lortzeko aukera dago.
- Ikasleak motibatzearen, komeni da benetako adibideak bilatzea eta eskuratutako ezagupenen erabilgarritasuna ikustea.



2. unitate didaktikoa: EGUZKI INSTALAZIO TERMIKOKO INSTALAZIOEN ANALISIA Iraupena: 15 ordu

IE2: Zenbait eguzki-instalazioen aurreproiektuak lantzen ditu, eta eginkizun horretan, energia-beharrak identifikatzen ditu eta instalazio horien bideragarritasuna baloratzen du.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Eguzki-instalazio termikoko zirkuituek biltzen dituzten elementu eta osagai nagusien ezaugarriak zehaztea.
2. Instalazio termikoko zirkuituetako elementuen, tresnerien eta osagaien teknologiak identifikatzea.

EDUKIAK					Multzoak								
					1	2	3	4	5	6	7	8	9
PROZEDURAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> Eguzki-instalazioetako zirkuituetako elementuen eta osagaien ezaugarriak zehaztea. 				X							
KONTZEPTUZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> Eguzki-instalazio termikoa. Eguzki-instalazio termikoen motak. Eguzki-instalazio termikoetako zirkuituen elementuak eta osagaiak. Ezaugarri nagusiak. 				X	X						
JARRERAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> Lanak egiten dituen bitartean jarrera ordenatua eta metodikoa izatea eta zailtasunen aurrean saiatuki jokatzeko. Lanak egiteko ezarritako epeetako konpromisoa. 				X	X						
JARDUERA				METODOLOGIA						BALIABIDEAK			
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikatuak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den						
			Ir.	Ik.									
J1 Unitate didaktikoaren aurkezpena.		15 min.	X	X	<p>Irakasleak unitatea aurkeztuko du, alderdi hauek adierazita: zein eduki landuko diren, unitatearen helburua, egin beharreko lanak, aurreikusitako denborak eta nola ebaluatuko den.</p> <p>Irakasleak ikasleei galderak egingo dizkie eguzki-energiaren parametroei buruz dituzten ezagupenen inguruan, eta horiek ezagutzeak duen garrantzia</p>	Ikasleen aurretiatzeko ezagutzak azalertzeko, ikasleek unitatea gainditzearen eskakizunak ezagutzeko, eta haiei aurrez jarrera egokia harrarazteko garatu behar duten lanarekiko.	OCDa. Ikasleei emango zaien unitatea aurkezteko eskema.						

				azpimarratuko du.		
J2 Eguzki-energia termikoa atzitzearen inguruko kontzeptuak azaltzea.	1	1 h	X	Irakasleak eguzki-energia atzitzearen inguruko kontzeptuak azalduko ditu: <ul style="list-style-type: none"> - Atzipen termiko pasiboa. - Atzipen termiko aktiboa. - Atzipen fotovoltaikoa - Etab. Kontzeptu bakoitzaren adibideak jarriko ditu, horiek errazago barneratzeko.	Eguzki-atzipenaren motak ezaugarriak eta, ondoren, aplikatzeko.	Powerpoint. Apunteak.
J3 Bero-transmisioaren printzipioak azaltzea.	1	30 min.	X	Irakasleak bero-transmisioaren printzipioei buruzko azalpena egingo du: <ul style="list-style-type: none"> - Erradiazioa. - Eroapena. - Konbektzioa. Kontzeptu bakoitzaren adibide errealak jarriko ditu, horiek errazago barneratzeko.	Bero-transmisioaren moduak ulertzeko eta ondoren instalazio termikoetan aplikatzeko.	Powerpoint. Apunteak.
J4 Eguzki-energia termikoan erabiltzen diren atzipen-sistemak eta eguzki-hargailuen motak azaltzea.	1,2	1 h	X	Irakasleak eguzki-energia termikoaren atzipen-sistemak azalduko ditu: <ul style="list-style-type: none"> - Zuzeneko atzipena. - Kontzentrazio eta/edo erreflexio bidezko atzipena. Eta erabiltzen diren hargailu motak ere bai: <ul style="list-style-type: none"> - Plaka lau kolektorea. - Hutseko kolektorea. - Etab. Atzipen moten aplikazio-ereduak emango dira, eta ikasleei hainbat motatako hargailuak erakutsiko zaizkie.	Erabiltzen diren kolektore motak eta horien ezaugarriak eta aplikazioak ezaugarriak.	Powerpoint. Apunteak. Hainbat motatako hargailuak.



J5-E1 Kolektore motak ezagutzeko ariketak egitea, eta horien dokumentazio teknikoaz aztertzea.	1,2	1 h		X	Irakasleak hainbat motatako argailuak eta dagokien dokumentazio teknikoaz helaraziko dizkie ikasleei. Irakasleek hainbat motatako argailuak identifikatuko dituzte, eta eman zaien dokumentazio teknikoaz aztertuko dute. Dagokien lan-fitxa bete beharko dute.	Fabrikatzaileak emandako dokumentazio teknikoaz maneiatzeko. Argailu motak eta horien ezaugarriak ezagutzeko.	Lan-fitxa, ariketaren enuntziatuarekin. Hainbat motatako argailuak. Merkataritza-katalogoak.
J6-E2 Eguzki-energiaren atzipenaren, bero-transmisioaren eta kolektore moten kontzeptuei buruzko galdera sorta betetzea.	1,2	1 h		X	Irakasleek orain arte eskuratutako ezagupenen inguruko galdera sorta bat erantzuko dute. Galdera sorta ikasgelan zuzenduko da, sortutako zalantzen eta zailtasunen inguruko bateratze-lanaren bidez.	Eskuratutako ezagupenak barneratzeko, eta horiek zein neurritaraino ulertu diren egiaztatzeko.	Lan-fitxa, ariketaren enuntziatuarekin.
J7 Eguzki-energia termikoko instalazio baten lehen mailako zirkuitua osatzen duten elementuak azaltzea.	1,2	2,5 h	X		Irakasleak lehen mailako zirkuitua osatzen duten elementuak eta horien ezaugarriak, funtzionamendua eta konexioak azalduko ditu. Ahal den guztietan, elementu errealak eskainiko zaizkie ikasleei, haiek identifikatu ahal izan ditzaten, baita multzoaren funtzionamendua ulertzeko instalazio muntatu bat ere.	Lehen mailako zirkuitua osatzen duten elementuak eta haien ezaugarriak eta funtzionamendua ezagutzeko.	Powerpoint. Lehen mailako zirkuituaren elementuak. Osotasunaren instalazio edo maketa muntatua.
J8-E3 Lehen mailako zirkuituko elementuak ezagutzeko eta horien dokumentazio teknikoaz maneiatzeko ariketak egitea.	1,2	1 h		X	Irakasleek instalazio baten lehen mailako zirkuitua osatzen duten elementuak identifikatuko dituzte, edota irakasleak helaraziko dizkieten osagai solteak identifikatuko dituzte. Horien dokumentazio teknikoaz aztertuko dute, eta dagokien lan-fitxa bete dute.	Eguzki-energia termikoko instalazio baten lehen mailako zirkuitua osatzen duten elementuak identifikatzeko, eta dagokien dokumentazio teknikoaz maneiatzeko.	Lan-fitxa, ariketaren enuntziatuarekin. Lehen mailako zirkuitua osatzen duten elementuak. Funtzionamendu-instalazioetarako sarbidea. Eguzki-energia termikoko instalazioen maketa didaktikoak. Merkataritza-katalogoak.
J9 Eguzki-energia termikoko instalazio motak azaltzea.	1	2 h 45	X		Irakasleak hainbat motatako eguzki-energia termikoei buruzko azalpenak emango ditu:	Gaur egun dauden instalazio motak eta horien aplikazioak ezagutzeko.	Powerpoint. Hainbat motatako instalazioak



		min.			<ul style="list-style-type: none"> - Banakoak. - Kolektiboak. - Muntaia-<i>kitak</i>. - Etab. <p>Osatzen dituzten elementuak, muntatzeko eskemak, ezaugarriak eta aplikazioak azalduko ditu.</p> <p>Komeni da hainbat moten instalazioak edo horien maketa didaktikoak edukitzea.</p>		edo tresneria didaktikoak.
J10-E4 Eguzki-energia termikoko instalazio bat, haren ezaugarrien arabera, diseinatzeko ariketa egitea.	1	1 h		X	Eguzki-energia termikoko instalazio bat edo batzuk diseinatzea planteatuko du, instalazio horren aplikazioa eta ezaugarriak abiapuntu izanik. Ikasleek instalazioaren ezaugarrien arabera hautatu beharko dituzte instalazioa osatuko duten elementuak, instalazioaren eskema marraztuko dute, eta elementu horiek dimentsionatzeko kalkuluak egin beharko dituzte.	Aurreko jardueretan eskuratutako jakintzak aplikatzeko. Eguzki-energia termikoko instalazio sinpleak diseinatzen ikasteko.	Lan-fitxa, ariketaren enuntziatuarekin. Merkataritza-katalogoak.
J11 Eguzki-energia termikoko instalazioei aplikatu beharreko araudiari buruzko azalpenak ematea.	1	2 h.	X	X	Irakasleak eguzki-energia termikoko instalazioei aplikatu beharreko araudia azalduko du: <ul style="list-style-type: none"> - Eraikuntzako Kode Teknikoa. - IDAEn baldintzen plegua. - Etab. <p>Ikasleei araudi horiek kasu zehatzen batean aplikatzea planteatuko zaie, ariketa gidatu gisa.</p>	Eguzki-energia termikoko instalazioei aplika dakiekeen araudia ezagutzeko.	Eraikuntzako kode teknikoak. IDAEn baldintzen plegua.
E5 Idatzizko ebaluazio-proba bat egitea.		1 h		X	Helburua da irakatsi eta ikasteko prozesuan eskuratutako lorpenak ebaluatzea. Erantzun laburreko eta/edo test motako galdera sorta betetzea izango da proba. Dokumentazio teknikoak maneiatu eta interpretatzeko edo instalazio sinpleren bat diseinatzeko ariketaren bat gehi daiteke.	Ikasteko prozesua ebaluatzeko.	Proba idatzia.



OHARRAK

- Ikasleak motibatzearen, komeni da benetako adibideak bilatzea eta eskuratutako ezagupenen erabilgarritasuna ikustea.
- J4 eta J5-E1 jardueran, hainbat hargailu mota eduki ezean, merkataritza-katalogoak eta Internetetik lortutako informazioa eta argazkiak erabil daitezke.
- Jarduera praktikoen lan-fitxak adierazitako epean eman eta jasoko dira, eta honako alderdi hauek baloratuko dira: adierazitako datan eman den eta horiek txukun, garbi eta zorrotasunez egin diren.
- Unitate didaktiko hau ur bero sanitarioa eta berokuntza lortzeko eguzki-energia termikoaren aplikaziorantz bideratzea eta beste aplikazio batzuk saihestea gomendatzen da, ikasketa erraztearen.
- Komeni da ikasgelan instalazioak osatzen dituzten elementuak eta tresneriak edukitzea, baita instalazio muntatuak ere. Instalazio horiek errealak edo tresneria didaktikoak izan daitezke.



3. unitate didaktikoa: EGUZKI INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOKO INSTALAZIO AUTONOMOEN ANALISIA						Iraupena: 15 ordu								
<p>IE2: Zenbait eguzki-instalazioren aurreproiektuak lantzen ditu, eta eginkizun horretan, energia-beharrak identifikatzen ditu eta instalazio horien bideragarritasuna baloratzen du.</p> <p>IE3: Eguzki-instalazio fotovoltaiko isolatuak konfiguratzeko dituzten tresneria eta elementuak hautatu eta kalkulatu ditu.</p> <p>Ikaskuntzaren helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Eguzki-instalazio fotovoltaikoko zirkuituek biltzen dituzten elementu eta osagai nagusien ezaugarriak zehaztea. 2. Instalazio fotovoltaikoko zirkuituetako elementuen, tresnerien eta osagaien teknologia identifikatzea. 3. Elementuak, tresneriak, osagaiak eta materialak sektoreko teknologia estandarren eta homologazio-arauen arabera hautatzea. 4. Elementuen, tresnerien, osagaien eta materialen ezaugarriak zehazteko, kalkulu informatizatuko eskuliburuak, taulak eta programak erabiltzea. 5. Eguzki-instalazioen administrazio- eta arau-esparrua ezagutzea. 														
EDUKIAK						Multzoak								
						1	2	3	4	5	6	7	8	9
PROZEDURAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> Eguzki-instalazio fotovoltaiko isolatua osatzen duten tresneriak eta elementuak hautatzea. 						X						
KONTZEPTUZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> Eguzki-instalazio fotovoltaikoa. Eguzki-instalazio fotovoltaikoen motak. Eguzki-instalazio fotovoltaikoetako zirkuituen elementuak eta osagaiak. Ezaugarri nagusiak. Eguzki-instalazioei aplikatzeko araudia. Oinarrizko kontzeptuak eta magnitudeak. Zelula fotovoltaikoak. Metagailuak, erregulagailuak, alderantzizkagailuak. Hari eroaleen sekzioa. 					X	X	X					
JARRERAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> Lanak egiten dituen bitartean jarrera ordenatua eta metodikoa izatea eta zailtasunen aurrean saiatuki jokatzea. Talde-lanetan elkartasunez parte hartzea, eta ahalegina taldeak eskatzen duenera egokitzea. 					X	X	X					
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK						
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota		Helburu inplikatuak.	D.	NORK		NOLA egingo den		ZERTARAKO egingo den		ZEREKIN egingo den				
				Ir.	Ik.									
J1 Unitate didaktikoaren aurkezpena.			15 min.	X	X	Irakasleak unitatea aurkeztuko du, alderdi hauek adierazita: zein eduki landuko diren, unitatearen helburua,		Ikasleen aurretiazko ezagutzak azalertzeko, ikasleek unitatea		OCDa. Ikasleei emango zaien				



					egin beharreko lanak, aurreikusitako denborak eta nola ebaluatuko den. Irakasleak instalazio autonomoen aplikazioen inguruan dituzten ezagutzei buruzko galderak egingo dizkie ikasleei.	gainditzearen eskakizunak ezagutzeko, eta haiei aurrez jarrera egokia harrarazteko garatu behar duten lanarekiko.	unitatea aurkezteko eskema.
J2 Eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioetan erabiltzen diren modulu fotovoltaikoen motak azaltzea.	1,2,3,4	1 h 30 min	X	X	Irakasleak modulu fotovoltaikoen ezaugarriak eta parametroak azalduko ditu: <ul style="list-style-type: none"> - Modulu motak. - Puntako tentsioa. - Puntako intentsitatea. - Zirkuitulaburreko tentsioa. - Zirkuitulaburreko intentsitatea. - Potentzia-puntu maximoa. - Konexio-moduak. - Etab. Era berean, modulu fotovoltaiko baten ezaugarri-plakaren datuak interpretatuko ditu, baita haren dokumentazio teknikoa ere. Ondoren, ikasleek eskura dauden modulu fotovoltaikoen ezaugarrien plakak eta horien dokumentazio teknikoak interpretatuko dituzte.	Eguzki-modulu fotovoltaikoaren parametro bereizgarriak ezagutzeko. Eguzki-instalazioetan erabiltzen diren modulu fotovoltaikoen motak eta ezaugarriak ezagutzeko. Modulu fotovoltaikoaren ezaugarrien plaka interpretatzeko. Dokumentazio teknikoa maneiatu eta interpretatzeko.	Power Point. Modulu fotovoltaikoen merkataritza-katalogoak. Modulu fotovoltaikoaren ezaugarrien plaka. Zenbait motatako modulu fotovoltaikoak.
J3-E1 Eguzki-modulu fotovoltaiko baten parametroak neurtzeko eta konexio-moduak aztertzeko ariketak egitea.	1,2,3.	1 h 15 min	X	X	Ikasleek eguzki-modulu fotovoltaiko baten parametro bereizgarriak neurtuko dituzte, modu gidatuan eta beharrezko tresneria zuzen erabilita: eguzki-erradiazioko neurgailua, voltmetroa eta pintza amperemetrikoa. Ondoren, beharrezko tentsioaren eta intentsitatearen arabera modulu fotovoltaikoak konektatzeko moduei buruzko ariketa batzuk egingo dituzte.	Eskuratutako ezagupenak barneratzeko eta gaiaren ulertze-mailari buruz gogoeta egiteko.	Lan-fitxa, ariketaren enuntziatuarekin. Eguzki-modulu fotovoltaikoak. Neurtzeko tresnak.
J4 Eguzki-instalazioetan erabiltzen diren baterien ezaugarriak azaltzea.	1,2,3,4.	2 h	X		Irakasleak eguzki-instalazioetan erabiltzen diren bateriei buruzko azalpenak emango ditu: <ul style="list-style-type: none"> - Motak. 	Eguzki-instalazio fotovoltaikoetan erabiltzen diren baterien eraikuntza-ezaugarriak eta ezaugarri	Powerpoint. Zenbait motatako bateriak.



					<ul style="list-style-type: none"> - Parametroak. - Kokapena. - Elkarketa. - Mantentzea. - Etab. <p>Komeni da zenbait motatako bateriak izatea: berun-azidokoak, nikel kadmiokoak, 2 V-ko basokoak eta blokebakarrak.</p>	<p>elektrikoak ezagutzeko.</p> <p>Dauden eguzki-baterien mota bakoitza identifikatzeko.</p> <p>Bateria mota bakoitza mantentzeko oinarrizko lanak ezagutzeko.</p>	
J5-E2 Bateria baten karga-egoera egiaztatzeko praktika autonomoa egitea.	1,3,4.	30 min.		X	<p>Ikasleek lantegi-ikasgelan dauden metagailuetako elektrolitoaren dentsitatea eta bornetako tentsioa neurtuko dituzte, haien karga-egoera zehazteko.</p> <p>Jarduera hau egitean, norbera babesteko beharrezko elementuak erabili behar dira.</p> <p>Gainera, erabilitako baterien dokumentazio teknikoak interpretatuko dute.</p> <p>Azkenik, lortutako emaitzak bateratu eta baliozkotuko dituzte.</p> <p>Komeni da hainbat mota eta egoeratako bateriak antolatzea.</p>	<p>Eskuratutako ezagupenak barneratzeko eta gaiaren ulertze-mailari buruz gogoeta egiteko.</p>	<p>Lan-fitxa, ariketaren enuntziatuarekin.</p> <p>Eguzki-erradiazio, intsolazio eta abarrei buruzko taulak.</p>
J6-E3 Bateriak konektatzeko ariketak egitea.	1.	30 min.	X	X	<p>Beharrezko tentsioaren eta ahalmenaren arabera bateriak konektatzeko moduei buruzko adibideak emango ditu irakasleak.</p> <p>Ondoren, ikasleek dagokion lan-fitxan adierazitako zenbait aplikazio-ariketa egingo dituzte.</p>	<p>Instalazioaren beharrak kontuan izanda, bateria-elkarketak egiten ikasteko.</p> <p>Eskuratutako ezagupenak barneratzeko, eta horiek zein neurritaraino ulertu diren egiaztatzeko.</p>	<p>Lan-fitxa, ariketaren enuntziatuarekin.</p>
J7 Erregulagailuen ezaugarriei buruzko azalpenak ematea.	1,2,3,4.	1 h	X		<p>Irakasleak instalazio isolatuetan erabiltzen diren erregulagailuen ezaugarriei buruzko azalpenak emango ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Erregulagailu motak. 	<p>Instalazio autonomoetan erabiltzen diren erregulagailuak identifikatzeko.</p> <p>Eguzki-instalazioetan erabiltzen diren erregulagailuen ezaugarriak</p>	<p>Powerpoint.</p> <p>Ekipamenduaren dokumentazio teknikoak.</p> <p>Karga-erregulagailua.</p>



					<ul style="list-style-type: none"> - Kokapena. - Parametroak. - Ezaugarriak. - Konexioak. - Etab. <p>Gainera, dokumentazio tekniko interpretatuko du, hura hautatzeko garaian kontuan hartu beharreko parametro garrantzitsuenak nabarmenduta.</p>	<p>ezagutzeko.</p> <p>Erregulagailu egokia hautatzeko, instalazioaren ezaugarrien arabera.</p> <p>Ekipamenduen dokumentazio tekniko interpretatzeko.</p>	
J8-E4 Erregulagailua konektatu eta doitzeko praktika gidatua egitea.	1,2,3,4.	1 h	X	X	<p>Irakasleak erregulagailu autonomoa konektatzeko eta deskonektatzeko protokoloa azalduko du.</p> <p>Erregulagailua konektatu eta abian jarriko du, eta haren parametroak doitu.</p> <p>Ondoren, ikasleek, 2 laguneko taldeetan, erregulagailua konektatuko dute, eta haren parametroak doitu dituzte, instalazioaren ezaugarriak kontuan izanda.</p>	<p>Eskuratutako ezagupenak barneratzeko, eta horiek zein neurritaraino ulertu diren egiaztatze.</p> <p>Erregulagailua konektatu eta deskonektatzeko protokoloa ulertzeko.</p>	<p>Lan-fitxa, ariketaren enuntziatuarekin.</p> <p>Dokumentazio teknikoa.</p> <p>Lantegi-ikasgelan eskura dauden erregulagailuak.</p>
J9 Erregulagailu autonomoa azaltzea.	1,2,3,4.	1 h	X		<p>Irakasleak eguzki-instalazioetan erabiltzen diren alderantzikagailu autonomoei buruzko azalpenak emango ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bihurgailu motak. - Alderantzikagailu autonomoen motak. - Kokapena. - Ezaugarri elektrikoak. - Konexioak. - Etab. 	<p>Instalazio autonomoetan erabiltzen diren alderantzikagailuak identifikatzeko.</p> <p>Alderantzikagailuen ezaugarri elektriko nagusiak eta horiek konektatzeko moduak ezagutzeko.</p> <p>Ekipamenduen dokumentazio tekniko interpretatzeko.</p>	<p>Powerpoint.</p> <p>Dokumentazio teknikoa.</p> <p>Alderantzikagailu autonomoa.</p>
J10-E5 Alderantzikagailu autonomoa konektatu eta haren parametroak egiaztatze praktika	1,2,3,4.	1 h		X	<p>Erabilitako alderantzikagailuaren dokumentazio teknikotik abiatuta, ikasleek hura konektatu eta abiaraziko dute, eta beharrezko parametroak egiaztatu</p>	<p>Eskuratutako ezagupenak barneratzeko eta horiek zein neurritaraino ulertu diren</p>	<p>Powerpoint.</p> <p>Lan-fitxa, ariketaren enuntziatuarekin.</p>



autonoma egitea.				eta doituko dituzte. Osziloskopiorik eskura balego, irteerako uhin-forma bistaratuko dute eta haren parametro bereizgarriak aztertuko dituzte.	egiaztatzeko.	
J11 Instalazio autonomo baten ebakidura- eta babes-elementuak azaltzea.	1,2,3,4.	1 h.	X	Irakasleak instalazio autonomo batean –korrante zuzeneko zatian zein korrante alternoko zatian–, instalatu beharreko ebakidura- eta babes-elementuak azalduko ditu. Horien funtzioa eta dimentsionamendu-modua azalduko du.	Eguzki-instalazio autonomoen ebakidura- eta babes-elementuak identifikatzeko.	Powerpoint. Dokumentazio teknikoa.
